

TAILERRA DENDAN

Erosketa orekatua
egingo dugu gaur



EROSKI
FUNDAZIOA

zurekin



ELIKADURA
ESKOLA



Hazteko energia



Fitxa teknikoa

HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Menu osasungarria egitea, dieta mediterranea eta sasoiko produktuak oinarri hartuta.
- Autonomiaz eta arduraz jokatzeko erosteko egiteko orduan, gastua kontrolatuz eta aurretik egindako aurrekontu batera egokituz.

GAKO-GAITASUNAK

- Hizkuntza-komunikazioa.
- Matematikako gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.
- Gaitasun digitala.
- Ikasten ikastea.
- Gaitasun sozial eta zibikoak.
- Ekimen-zentzua eta espiritu ekintzailea.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.

“Erosketa orekatua egingo dugu gaur” tailerra

- Hurrek aurrekontu bat izango dute erosketa egiteko, eta erne ibili beharko dute eskaintzez baliatzeko.
- Tokiko eta sasoiko produktuaren aldeko apustua: sasoiko produktuak eta inguruko ekoizleenak sartu beharko dituzte erosketa-saskian.
- Eguneko menua egitea: erosketa egitean, egun osoko menua hartu beharko dute kontuan (gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, merienda eta afaria).

Tailerraren dinamika

1. Tailerra egin aurretik

Taldeak egingo dira, eta erosketa komun bat egin beharko dute supermerkatuan. Talde bakoitzak kolore bat eramango du, baita akreditazio bat ere, identifikazio gisa (egungo tailerlean ere egiten da hori). Berrikuntza gisa, 5 talde egitea proposatzen dugu, bat egunean zehar egiten den otordu bakoitzeko (gosaria, hamaiketakoa, bazkaria, merienda eta afaria). Talde bakoitza arduratuko da otorduetako batez, eta hari lotutako aurrekontu bat izango du.

2. Aurrekontua eta erosketa

Azalduko zaienez, eguneko menua prestatu beharko dute 4 laguneko familia batentzat. Gero, 20 minutuko tarte izango dute produktuak taldeka erosteko. Honako irizpide hauek hartu beharko dituzte kontuan menua egiteko:

- **Bat etortzea piramide nutrizionalarekin (osasungarria eta orekatua).**
- **Tokiko produktuak egotea.**
- **Sasoiko produktuak egotea.**
- **Eskaintzako produktuak egotea.**
- **Aurrekontura egokitzea.**

3. Erosketaren balorazioa

Tailerreko arduradunak supermerkatuan egongo den piramide nutrizional baten inguruan jarriko ditu talde guztiak. Ikasleek, taldeka, hautatutako elikagaiak azalduko dituzte, eta produktu bakoitza piramide nutrizionalean jarriko dute, haien ustez dagokion mailan.

Arduradunak baloratu egingo du produktuak behar bezala kokatuta ote dauden piramide nutrizionalean (egungo tailerlean egiten zen bezalaxe).

Gero, erosketa baloratuko da ezarritako irizpideen arabera, eta markatu egingo du horretarako prestatutako horma-irudian.